

ESKAERA BETETZEKO LAGUNTZA GIDA

Iraila 2018

AURKIBIDEA

SARRERA ETA BETETZEA3

Ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa.....4

Irakaskuntza8

Kudeaketa.....9

A mailarako sarbidea.....10

XEDAPEN IRAGANKORRARI JARRAIKI EGINDAKO MERITUEN EGIAZTAPENA.....10

Irakaskuntza10

Ikerketa eta ezagutzaren transferentzia.....12

Kudeaketa.....15

A mailarako sarbidea.....16

SARRERA

Gida honen helburua Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) Irakasle eta Ikertzaileei banakako ordainsari osagarrien ebaluazio-eskaera betetzeko laguntza ematea da.

Unibasq, UPV/EHUko Kontseilu Sozialak onartu eta argitaratzen duen deialdian, ebaluazio organo gisa besterik ez da aritzen.

Unibasq-ek UPV/EHUK igorritako eskaerak ebaluatzen ditu azken honek indarrean dagoen araudia ezartzen dituen baldintza legalak eta formalak betetzen direla egiaztatu eta gero. Ondoren, Unibasq-ek Kontseilu Sozialak banakako ordainsari osagarriak esleitu ditzan beharrezkoa den txostena egingo du.

Gida honetaz gain, eskatzaileari Unibasq-eko web guneko (<http://www.unibasq.eus/>) Osagarrien programaren atala ikustatzea gomendatzen zaio. Hemen informazio gehiago aurkituko du eta alderdi hauetan sakontzea ahalbidetuko dio: Protokoloa eta Ebaluazio Dekretuak, Protokoloaren eranskina, etab. Halaber, web gune honetan, FAQ dokumentua aurkituko du, eskatzaileak maiztasun handiagorekin izan ditzaken galderak eta zailtasunak argitzeko bideratuta.

ESKAERA BETETZEA

ESKAERAREN TRAMITAZIOA

Ebaluazioaren eskaera SOILIK helburu horretarako prestatutako aplikazioaren bitartez tramitatuko da: <https://ehu.unibasq.eus/osagarriak2017/login>. Horretarako, datu pertsonalak eta ataletan eta azpiataletan aurkeztuko diren ebaluatzeko merezimenduak adierazi behar dira.

Ez eskaera ezta mereimenduen aurkezpena ere ezin izango dira beste prozedura edo euskarri baten bidez tramitatu. Unibasqek ez ditu paperean aurkeztutako eskaerak ezta merezimenduak ere ebaluatuko.

TASAREN ORDAINKETA

B eta A mailen ebaluaziorako, deialdian azaltzen den bezala, 46,60 €-tako tasa ordaindu beharko da. Ordainketa egin izanaren egiaztagiria bide telematikoaren bitartez egingo da dagokion dokumentua erantsiz.

Aplikazio informatikoak eskatzaileari tasen orria, behar bezala sinatuta baita ordainketaren egiaztagiria ere, nola igo behar diren azalduko dio. Dokumentu hauek eranstean ez badira, ezin izango da eskaera itxi eta hau ez da behar bezala beteta geldituko. Horregatik, eskatzailea ebaluazio prozesutik at geldituko da.

ESKAERA BETETZEA

1. Eskatzaileak, Xedapen Iragankorrari jarraiki ebaluatzeko aukera badauka eta hautatuz gero, aplikazio informatikoan adierazi beharko du.

2. Eskaeraren betetzea Protokoloaren VII. atalaren arabera.

Eskatzaileak atal eta azpiatal guztiak bete beharko ditu, banan bana, aplikazio informatikoak eskatzen dizkion datuak sartuz (tituluak, deskribapenak, hasierako eta amaierako datak, kredituak, etab.).

Ebaluazioa egiteko, eskatutako aldia elkarren segidako 5 urteko bloketan banatuko da. Hori dela eta, eskatzaileak aurkeztu behar dituen merezimenduak bloketan banatuko ditu, merezimenduen egiaztapena fitxategi informatiko ezberdinen bitartez egingo du, bloke kopuruaren arabera. Hau da, ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa, irakaskuntza eta kudeaketa blokeetan.

Merezimenduak egiaztatzeko dokumentuen ordena aplikazio informatikoan agertzen dena jarraitu beharko du, eskaeran ataletan eta azpiataletan sartutako datuen arabera.

Eskaeran agertzen diren merezimendu guztiak egiaztatuta egon behar dira, zalantzarik utzi gabe, egokia den dokumentazioaren bidez eta dokumentu honetan zehazten diren argibideei jarraiki. Ebaluazio Batzordeek ez dituzte kontuan hartuko era egokian adierazten ez diren eta zuzenki egiaztatzen ez diren merezimenduak.

Mezu elektronikoak ez dira egiaztagirri egokitzat hartuko.

Merezimenduen justifikazioen kopiak ez dira konpultsatu behar.

Bestalde, pdf bat gehitu behar da aurreko fitxategietan sartutako dokumentazioaren ordena adierazten duen aurkibidearekin.

A2 tarte eskatzen duenak CV osoa gehitu beharko du, formatu askean.

Gainontzeko eskatzaileentzat CV osoa formatu askean gehitzea aukerakoa da. Ebaluazio Batzordeek, kasu hauetan, eskatzailearen jardueraren testuingurua ezagutzeko erabiliko dute CVa.

ATALAK BETETZEA

1. IKERKETA, EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA DIBULGAZIO ZIENTIFIKOA

1.1.1 Argitalpenak.

Atal honetan, eskatzaileak bera egile den liburu, liburuaren kapituluak, artikulak eta patenteak sartuko ditu.

Argitalpenen ebaluaziorako Ebaluazio Batzordeek I. Eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartuko dituzte.

Atal honen meritak justifikatzeko hurrengo datu hauek adierazi beharko dira:

- **Liburuak:** eskaeran egilea, titulua, argitalpenaren tokia, argitaletxea, argitalpenaren urtea, orrien kopurua, ISBN-a, kalitate-zantzuak eta hizkuntza adieraziko dira.
- **Liburuaren kapituluak:** eskaeran egilea, kapituluaren titulua, liburu osoaren titulua, zuzendaria, liburu osoaren argitaratzailea, argitalpenaren tokia, argitaletxea, argitalpenaren urtea, eskatzaileak idatzitako orrien kopurua, ISBN-a, kalitate-zantzuak eta hizkuntza adieraziko dira.
- **Artikuluak:** egilea, titulua, aldizkariaren izena, aldizkariaren zenbakia, argitalpenaren urtea eta eskatzaileak idatzitako orrien kopurua adieraziko dira. Kalitate-zantzuak (eragin faktorea, aldizkariaren kokapena, zein laurdenan dagoen, aipu kopurua), ISSN eta hizkuntza adieraziko dira ere.

Ez dira aintzakotzat hartuko argitaletxeak onartutako baina argitaratu gabe dauden artikulak, liburuak edo liburuaren kapituluak.

Patenteei dagokienez, eskaeran erregistroan agertzen diren datuak adieraziko dira. Justifikatzeko, erregistro eta emakida egiaztagirri ofizialen kopiak erantsiko dira.

Katalogoen eta erakusketen antolakuntza kasuetan (Arte Ederrak), erakusketaren titulua, iraupena, kalitate adierazleak/kalitate-zantzuak eta eragin adierazleak adierazi beharko dira ezagutza eremuaren arabera.

Eskatzaileak gehienez ere 15 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko.

1.1.2 Ikerketa-arloko talde, sare eta proiektuetan modu aktiboan parte hartzea

Eskatzaileak, aplikazio informatikoan agertzen diren atal honetako datuak bete egin beharko ditu: deialdi mota, jardueraren izena, taldearen izena, proiektuaren izena, parte-hartze mota, dedikazioa, finantzatzen duten erakundeak, proiektuan duen maila, ikertzaile nagusiaren izena, titulua, hasierako eta amaierako datak eta emandako finantzaketa (zenbatekoa), etab.

Eskatzaileak UPV/EHUren edo deialdia egin duenaren ziurtagiri dokumentu baten bidez egiaztatu beharko du bere parte-hartzea eta talde horren kidea dela. Arlo klinikoen kasuan, lehia bidezko deialdietako ikerketa klinikoetako jarduerak ere baloratuko dira, betiere osasun-agintaritza eskudunak egiaztatutako deialdiak izanik.

Ikerketa-taldearen osaera eta ikerketa proiektuen emakidaren dokumentu ofiziala erantsi behar da. Proiektuak egiaztatzeko dokumentua Ikertzaile Nagusiak bakarrik sinatzen badu ez da nahikoa izango.

Eskatzaileak gehienez ere 5 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bloke bakoitzeko.

1.1.3 Kongresuetan parte-hartzea eta beste merezimendu batzuk.

1.1.3.1 Biltzarretan parte-hartzea

Ebaluazio Batzordeak nazioartekoak diren eta, salbuespen gisa, garrantzi handiko nazionalak diren kongresu zientifikoak bakarrik ebalutuko ditu.

Gainera, kongresuetan parte-hartze maila baloratuko du. Erakunde antolatzailea, ospatu den lekua eta datak adierazi beharko dira.

Biltzar guztiak ekitaldia antolatu duen erakundeak emandako egiaztagiraren bidez ziurtatutko dira.

Komunikazioen kasuetan, eskatzaileak aurkeztutakoak bakarrik ebaluatuko dira.

1.1.3.2 Beste merezimendu batzuk.

Eskatzaileak aplikazio informatikoan honako datu hauek bete ahal izango ditu: egonaldiak, sariak, etab. Gainontzeko merezimenduei dagokienez, eskatzaileak jarduera horrek UPV/EHUrentzat duen ekarpena adierazi beharko du.

Eskatzaileak gehienez ere 10 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko 1.1.3 atal osoan zehar.

1.2 EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA DIBULGAZIO ZIENTIFIKOA

Atal honetan puntuak lortzeko, ikerketako seiurteko bat edo ikertramo bat egiaztatuta eduki behar da, edo horren ordez, gutxienez 7 puntu lortu behar dira 1.1.1 azpiatalean.

Seiurtekoaren edo Ikertramoaren egiaztapena Unibasqen ebazpena, CNEAlrena edo Unibertsitatearena aurkeztuz justifikatuko da.

1.2.1 Ezagutzaren transferentzia

1.2.1.1 Pertsonen prestakuntza eta ekintzailtza-jarduerak.

Azpiatal honetan sartuko dira kultura ekintzailea, enpresak sortzea edo spin-offa sustatzen duten jarduera eta proiektuak. Honako faktore hauek hartuko dira kontuan: jarduera mota, eskatzailearen parte-hartze maila, kalitate-zantzuak, erakunde laguntzaileak edo finantzatzaileak, onuradun kopurua eta jardueraren emaitzak.

Eskatzaileak jarduerak aurrerapen zientifiko-teknologikoarekin duen lotura laburki azaldu beharko du.

1.2.1.2 Norberaren ezagutzaren transferentzia.

Azpiatal honetan sartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 18. eta 19. artikuluetan aipatzen diren kontratuak, hau da, kanpoko erakundeetan egindako aldi baterako kontratuak. Era berean, espezialista-plaza asistentziala lotura-araubidean duten unibertsitate-irakasleek itunpeko osasun-erakundeetan egindako jarduera ere sartuko da.

Iraupena, kontratu mota eta erakunde kontratatzailearen izen ona hartuko dira kontuan. Erakundearen gutun bat aurkeztu behar da eta, bertan, egindako jarduera eta transferitutako ezagutzaren kalitate-zantzuak labur-labur adierazi behar dira.

Eskatzaileak jarduerak aurrerapen zientifiko-teknologikoarekin duen lotura laburki azaldu beharko du. Egiatzena, egindako zerbitzu berezietan, zerbitzu-eginkizunan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean jasotako eszedentzian edo kontratuaren murrizketaren bitartez gauzatutako arduraldi partzialetan oinarrituko da.

1.2.1.3 Transferentzia, kanpoko baliabide ekonomikoak jasota.

Azpiatal honetan sartuko dira honako hauek:

- Funtzak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatera itzultzen dituzten enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin egindako ikerketa-arloko kontratu edo hitzarmenetan parte hartu izana, betiere unibertsitateak araututako ohiko sistemen bidez kontratatutakoak izanik. Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak UPV/EHU izan duen inpaktu ekonomikoa ere.

- Lehia bidezko deialdietan esleitutako proiektuetan parte hartu izana, enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin egindako proiektuak izanik. Deialdia egin duen organoaren izen ona kontuan hartuko da, eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan), haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak UPV/EHU izan duen inpaktu ekonomikoa ere.

- Ustiatzen ari diren patenteak edo utilitate-modeloak.

Eskatzaileak jarduerak aurrerapen zientifiko-teknologikoarekin duen lotura laburki azaldu beharko du.

Ustiatzen ari diren patenteak edo utilitate-modeloak soilik hartuko dira kontuan.

En este apartado se tendrá especialmente en cuenta la captación de recurso económicos externos para la UPV/EHU. Atal honetan UPV/EHUrentzat jasotako kanpoko baliabide ekonomikoak lortzea hartuko da kontuan bereziki.

1.2.1.4 Gizartean eragin handia duen transferentzia.

Azpiatal honetan sartuko dira honako hauek:

- UPV/EHUK eta irabazi-asmorik gabeko erakunderen edo administrazio publikoren batek gizartean eragin handia duten jarduerak garatzeko sinatutako kontratu edo hitzarmenetan parte hartu izana. Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak gizartean izan duen inpaktua ere.

- Gizarte-garapenerako proiektuetan parte hartu izana, lehia bidezko deialdien bitartez esleitutako proiektuak izanik. Deialdia egin duen organoaren izen ona kontuan hartuko da, eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan), haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita kontratu/hitzarmenak gizartean izan duen inpaktua ere.

1.2.1 azpiatalean gehieneko puntuazioa lortzeko, inpaktu ekonomiko eta/edo sozial handiko 5 ekarpen aurkeztu behar dira, urtebeteko iraupena dutenak, edo bestela, transferentziako seiurteko baten parekotzat jotzeko moduko merezimenduak.

Eskatzaileak jarduerak aurrerapen zientifiko-teknologikoarekin duen lotura laburki azaldu beharko du. Horretarako, kontratua aurkeztu beharko du (83 artikulua) edo ezarritako hitzarmena eta, bestalde, egindako elkarlanaren inpaktua jasotzen duten onuradunen erreferentzia gutunak.

Atal honetan egindako jarduerak gizarte-ongizatean izandako eragina hartuko da kontuan bereziki.

1.2.1 azpiatalean, eskatzaileak gehienez ere 6 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzean.

1.2.2 Dibulgazio Zientifikoa.

1.2.2.1 Dibulgazio Argitalpenak.

Azpiatal honetan eskatzaileak honako datuak sartuko ditu:

Liburuak edo liburuen kapituluak. Dibulgazio mailakoak bakarrik hartuko dira kontuan. Eskatzaileak argitaletxearen izena adieraziko du, egilea, orrien kopurua, zenbat ale saldu diren eta komunikabidearen zein argitalpenaren kalitate-zantzuak.

Dibulgazioko artikulua. Dibulgazio mailakoak bakarrik hartuko dira kontuan. Eskatzaileak aldizkariaren, egunkariaren edo inprimatutako komunikabidearen izen ona adieraziko du, zenbat ale banatu diren eta kalitate-zantzuak.

Argitalpenen kopia aurkeztea ez da beharrezkoa. Aldiz, aurrez emandako datuak nahikoak izan behar dira argitalpena aurkitzeko eta ebaluatzeko.

Kalitatearen adierazle gisa <https://divulgasfera.org/> biltegian edo honen parekoa den beste biltegi batean egindako merezimenduaren aurkezpena adierazi beharko da.

1.2.2.2 Ikerketaren dibulgazioko eta zabalkundeko jarduerak ikus-entzunezko komunikabideetan.

Eskatzaileak zer dibulgazio jarduera motak egiten dituen adierazi beharko ditu datu hauekin: dibulgazio komunikabidea, parte-hartze mota, parte-hartzearen maiztasuna, noiztik parte-hartzen duen eta kalitate-zantzuak (jardueraren eragin adierazleak/faktoreak eta ekarpena ikusteko esteka). Kalitatearen adierazle

gisa <https://divulgasfera.org/> biltegian edo honen parekoa den beste biltegi batean egindako merezimenduaren aurkezpena adierazi beharko da.

1.2.2.3 Dibalgazioa sare sozialen bidez.

Eskatzaileak komunikabide mota, parte-hartze mota, parte-hartzearen maiztasuna, kalitate-zantzuak eta gizartean izandako eragina ikusteko web orriraren esteka adieraziz Kalitatearen adierazle gisa <https://divulgasfera.org/> biltegian edo honen parekoa den beste biltegi batean egindako merezimenduaren aurkezpena adierazi beharko da.

1.2.2 azpiatalean, eskatzaileak gehienez ere 3 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzean.

Liburuen kasua salbuespen, atal honetan azpiatal bakoitzean egindako jarduera orokorra ekarpenentzat hartuko da.

2. IRAKASKUNTZA

2.1 DOCENTIAZ PROGRAMAKO EBALUAZIOA.

Eskatzaileak ebaluazio honetara aurkeztu zen deialdiaren urtea eta lortutako puntuazioa adierazi beharko du bere eskaeran.

Justifikazioa UPV/EHUK igorritako ziurtagiriarekin egiaztatuko da, aurretik adierazitako datuak adieraziz. Horretarako, eta eskudun organoak sinatuta, UPV/EHUK egindako ebaluazioaren emaitzaren komunikazioa baliozkoa izango da.

2.2. DONCENTIAZ PROGRAMAREN ORDEZKO EBALUAZIOA.

2.2.1 Nazioartekotzea, metodologiak eta berrikuntza irakaskuntzan.

Eskatzaileak hurrengo datuak adierazi behar ditu:

Gradu-amaierako eta master-amaierako lanen zuzendaritza: lanaren titulua, defendatu egin den titulazioa, defentsaren data. Zuzentzen ari diren baina eskaera aurkezteko datan defendatu gabeko MALak eta GRALak ezin izango dira sartu. Defendatutako MALak eta GRALak Unibertsitateak igorritako ziurtagiriarekin justifikatuko dira.

Aintzatetsitako kalitatea duten graduoko eta graduondoko programetan parte hartu izana, nazioarteko proiektzioa bereziki baloratuko da. Kurtso akademikoa, titulazioa, irakasgaia, programaren kalitate-zantzuak eta emandako kreditu kopurua. Merezimendu hauek titulazioaren erantzulea den Unibertsitatearen eskudun organoak igorritako ziurtagiriaren bidez eta beste titulazio batzuegandik nabarmentzen duten aintzatetsitako kalitate-zantzen ekarpenaren bidez egiaztatuko dira.

Ofiziala ez den hizkuntza batean eskolak eman izana, betiere eskatzailearen jakintza-arloko aztergaia ez denean. Kurtso akademikoa, titulazioa, irakasgaia, eta emandako kreditu kopurua adierazi behar dira. Unibertsitateak igorritako ziurtagiriaren bidez justifikatuko da.

Nazioarteko irakasleen/ikasleen truke-programetan parte hartu izana. Erasmus truke-programen bitartez, ekintza integratuen bitartez edo antzeko beste ekintza batzuen bitartez beste unibertsitate batzuetan egindako egonaldiak soilik hartuko dira kontuan Datu hauek adieraziko dira: truke-programa, trukea egin duen Unibertsitatea edo zentroa, parte-hartzearen iraupena eta egindako jarduera. Unibertsitateak igorritako ziurtagiriaren bidez justifikatuko da.

Frogatutako zabalkundea izan duen irakasmateriala prestatu izana, artikulua, liburuak eta liburuetako kapituluak idatzi izana izen oneko aldizkari eta argitaletxeetan. Kanpo-ebaluazio prozesua kontuan hartuko da originalak argitaratzean, argitaletxea, hizkuntza, beste kalitate-zantzu batzuk, baita argitalpenaren inpaktua ere. Datu hauek adierazi behar dira: argitaletzea edo aldizkaria, egilea, tiutlua, orrien kopurua, ISBNa, ISSNa edo DOIa, data eta komunikabidearen kalitate-zantzuak, baita argitalpenaren kalitate-zantzuak ere. Hauen guztien kopiak ez dira aurkeztu behar.

Berrikuntza pedagogikoko proiektuetan (unibertsitatearen beraren edo beste erakunde batzuen hezkuntza-erloto berrikuntzako proiektuak eta abar) eta gizartean eragin handia duten proiektuetan parte hartu izana. Datu hauek adieraziko dira: deialdia egin duen organoa, parte-hartze mota, jardueraren deskribapena, iraupena, emandako finantzaketa eta jardueraren emaitzak. Deialdia egin duen organoak igorritako ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean ikasleei prestakuntza akademikoa emateko jarduerak antolatu izana. Adierazitako merezimenduen deskripabean labur bat, iraupena eta kalitate-zantzuak adieraziko dira. Unibertsitateak igorritako ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintza birtualean parte hartu izana. Datu hauek adierazi behar dira: kurtso akademikoa, titulazioa, irakasgaia, eta emandako kreditu kopurua. Unibertsitateak igorritako ziurtagiriarekin justifikatuko da.

Irakaslanarekin lotutako sariak jaso izana. Sariaren izena, ematen duen organoa edo taldea eta kalitate-zantzuak adierazi behar dira. Sariaren ebazpen publikoaren kopia edo sariaren egiaztagiriaren bidez justifikatuko da.

2.2.2. Irakaskuntzaren emaitzak.

Eskatzaileak kurtso akademikoa, titulazioa, irakasgaia, ikasleek duten iritziari buruzko inkestaren emaitza eta emandako kreditu kopurua adierazi beharko ditu.

Eskatzaileak adieraziko duen irakaskuntza-kalitatearen ebaluazioa justifikatzeko ikasleen inkestaren kopia bat erantsiko da.

2.2 azpiatalean, eskatzaileak gehienez ere 30 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzean.

2.3 EBALUAZIOALDIAN DEFENDATUTAKO DOKTOREGO-TESIAK ZUZENDU IZANA.

Eskatzaileak datu hauek adierazi behar ditu: doktorego programaren izena, tesiaren titulua, zuzendarien kopurua, irakur-zentroa, irakurtze urtea, kalifikazioa eta aparteko sariaren lorpena badagokio.

Eskatzaileak gehienez ere 3 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzean.

3. KUDEAKETA

3.1 Kide bakarreko kudeaketa-kargu akademikoak bete izana.

Eskatzaileak betetako kargua eta bere iraupena adierazi beharko ditu.

Merezimendu hauen justifikazioa egiteko eskatzaileak zerbitzu-orriaren kopia, izendapen eta kentze ebazpenaren kopia edo jarduera egin den Unibertsitatearen ziurtagiria erantsi beharko du.

3.2 Administrazio Publikoan karguak bete izana, zerbitzu berezien egoeran.

Eskatzaileak betetako kargua eta bere iraupena adierazi beharko ditu

Merezimendu hauen justifikazioa egiteko eskatzaileak zerbitzu-orriaren kopia edo izendapen eta kentze ebazpenaren kopia erantsi beharo du.

3.3. Kudeaketako beste jarduera batzuk.

Eskatzaileak Ebaluazio Protokoloan jasotako kudeaketa merezimenduen ezberdinak diren beste batzuk sartu ahal izango ditu, dagozkien ziurtagirien bidez egiaztatuz.

Azpiatal honetan, eskatzaileak gehenez ere 5 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzean.

4. A MAILARAKO SARBIDEA

4.1 A1 tarterako sarbidea

Eskatzaileak 3 seiurteko edo ikertramo dituela justifikatu beharko du, CNEAIren edo Unibasqen ebazpenaren kopiaren bidez.

4.2 A2 tarterako sarbidea

Eskatzaileak, berak egindako autotxosten batean, bere bizitza akademiko osoaren eta eskaerako 4 ataletan agertzen diren 4 ekarpen nabarmenenak adierazi beharko ditu. Halaber, hauen guztien kalitate-zantzuak egiaztatzen dituen kopia erantsi ahal izango du.

A2 tartearen ebaluazioa egiteko eskatzaileak bere jarduera akademiko osoaren CVa eranstea ezinbesteko baldintza da.

EBALUAZIOA PROTOKOLOAREN XEDAPEN IRAGANKORRARI JARRAIKI JASO NAHI DUTEN ESKATZAILEEN MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEKO ERA

1. IRAKASKUNTZA

1.1 Jarraian agertzen diren alderdietan oinarritutako UPV/EHUn burututako Unibertsitate Irakaskuntza:

Atal hau bi azpi-ataletan banatzen da: Irakaskuntza merezimenduak eta Irakaskuntza Gida.

Irakaskuntza merezimenduen barne, emandako irakasgai guztiak sartu beharko dira. Irakaskuntza mota ondorengo eran eta ordenatuta banatuko da: Lizentziatura, Diplomatura, Masterra edo Gradua. Irakasgaiaren izena, ematen den ikasturtea eta, izanez gero, ikasleen asetasun inkesten emaitzak adieraziz. Halaber, irakasgaia ematen den hizkuntza eta eskatzaileak emandako ordu edo kreditu kopurua adieraziko dira.

Merezimenduak sartzeko lana errazteko "BIKOIZTU" aukera dago. Aukera honek hautatutako merezimendua irakasgaia eman den beste ikasturte batera gehitzea ahalbidetuko du. Horrela informazio guztia berriro sartzeari saihesten da.

Merezimendu hauek justifikatzeko, ezinbestekoa da Unibertsitateak behar bezala egiaztatuko irakaskuntza enkargua eranstea.

Irakaskuntza Gidaren azpiatalean ez dira GAUR-en argitaratutako irakaskuntza araudiak eta irakasgai talde guztientzat balioztatutako gidak sartu behar. Atal honetan aurrekoak garatzen dituzten eta nahita egindako eta

eskatzaileak ikasleari emandako gidak jasoko dira. UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak “Ikaslearen gida” deritzona da (<http://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/irakaskuntza-gidak>), hain zuzen ere.

Gidaren balorazioa egiteko aplikazio informatikoan telematikoki gehitu behar dira bere egite data adieraziz.

1.2 Hizkuntz eskakizunaren nahitako aldaketa hizkuntza-eskakizun elebidun postu batera eta irakaskuntza euskaraz ematen den ondorengo egiaztapena

Atal honetan eskatzaileak hizkuntza-eskakizuna elebiduna duen adierazi beharko du.

Hizkuntza-eskakizun nahitako aldaketak esan nahi du eskolak gaztelaniaz emateko kontratua duen irakasle batek eskolak euskaraz emateko nahitako aldaketa eskaera egin eta Unibertsitateak onartzen duela. Aldaketa honek irakaskuntza euskaraz ematea ahalbidetu behar du.

Euskarazko errektoreordetzaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da.

1.3 Doktorego tesiaren eta bestelako ikerkuntza-irakaskuntza lanen zuzendaritza

Tesien zuzendaritza ebaluatuko da, **baina ez da aintzat hartuko inolaz ere tesien Epaimahaietan izandako partaidetza.**

Karrera, Gradu eta Tesina edo Master bukaerako lanak ere baloratuko dira.

Merezimendu guzti hauek burututako zuzendaritza egiaztatzen duen dokumentuaren bitartez frogatuko dira.

1.4 Kanpo Kalitate egiaztagiria duten master eta doktoregoen irakaskuntza ematea

Batzordeak soilik kanpo egiaztapena duten masterrak eta doktoregoak ebaluatuko dituzte. Eskatzaileak eskolen iraupena eta ezarpen esparrua adierazi beharko du.

Merezimendu hauek Unibertsitateak luzatutako egiaztapen dokumentuaren bitartez justifikatuko dira.

1.5 Beste unibertsitate eta prestakuntza zentro batzuetan irakastea

Irakaskuntza mota adierazi behar da: Diplomatura/Lizentziatura, Masterra, Doktoregoa, Gradua eta bestelakoak, eskolak eman diren lekua, iraupena eta emandako kreditu-orduak adieraziz.

Bakarrik hartuko da kontuan Unibertsitate maila duten Unibertsitate eta prestakuntza zentroetan emandako irakaskuntza. Gainontzeko irakaskuntza ez da kontuan izango.

Merezimenduak emandako irakaskuntzari dagokion egiaztapen dokumentuarekin justifikatu behar dira.

1.6 ISBN-arekin ospe handiko argitaletxetan argitaratutako irakaskuntza materiala egitea.

Batzordeak irakaskuntza materialaren liburu eta liburuen kapituluak ebaluatuko ditu. Eskatzaileak egilea, ISBN edo ISSN-a, argitaletxea, kalitate adierazleak eta hizkuntza azaldu beharko ditu. 12 puntu lortu ahal izango dira materiala euskaraz argitaratuta badago.

Irakaskuntza materialaren argitalpena egiaztatzeko ez da kopiarik erantsi behar, baizik eta bere ISBN edo ISSN-a adierazi eta bere topaketa eta eragina neurtzea ahalbidetzen duten gainontzeko kalitate adierazleak. Ez dira irakaskuntza argitalpenak: irakasgaien programa/gida, kongresuen akta-liburuak, burututako tesiak.

1.7 Irakaskuntzako nazioko edo nazioarteko truke-programetan parte hartzea (ERASMUS, SENECA edo bestelakoak), irakasle gisa.

Atal honetan jarduera motari buruzko datuak, hasiera eta bukaera datak eta eskolak ematen egindako orduak adierazi beharko dira.

Eskatzaileak egiaztagiri egokiaren bitartez parte-hartzea frogatu beharko du.

1.8 Irakaskuntzako berrikuntza-proiektuak gizartean oihartzun berezia dutenei erreparatuta.

Irakaskuntzan edo Heziketan Berrikuntza Proiektuak ebaluatuko dira, eskatzailearen parte-hartzea maila baloratuz.

Proiektua eta parte-hartzea dagokien egiaztagiriekin justifikatu beharko du eskatzaileak.

1.9 Irakaskuntza ebaluatzeko sistemen emaitzak (DOCENTIAZ edo bestelakoak).

Ebaluatzaileek DOCENTIAZ programan eskatzailearen parte-hartzea ebaluatuko dute. Parte hartu duen deialdiaren urtea adierazi beharko da (ebalatu behar den epealdiaren barnean egon beharko dena), eta lortutako emaitza.

Atal honetan ez dira ikaslearen inkestak baloratuko. Hauek 1.1 azpiatalean baloratzen dira. Ezta bosturtekoak ere.

Merezimendu hauek dagokien dokumentuekin justifikatuko dira.

1.10 Beste merezimendu batzuk.

Atal honetan Unibasq-eko Ebaluazio Protokoloan jasotzen diren merezimenduak ebaluatuko dira, hau da:

- i. Unibertsitateko irakaskuntza-prestakuntzarako ikastaroetan parte hartzea.*
- ii. Unibertsitateko irakaskuntza-jardueragatik lortutako sariak.*
- iii. Ofiziala ez den hizkuntza batean irakaskuntza ematea, hizkuntza hori ez bada eskatzailearen jakintza-arloaren xedea.*
- iv. Jakintza zientifikoa ezagutarazteko eta zabaltzeko goi-mailako jardueretan parte hartzea, baita unibertsitatean egindako lana gizarteari jakinaraztera bideraturiko bestelako jardueretan ere (atal honetan, besteak beste, ate irekien egunetan parte hartu izana, komunikabideekin lankidetzan aritu izana edo zientziaren zabalkundea, etab. aintzat hartuko ditu Batzordeak) .*
- v. UPV/EHUren eskaintza birtualean parte hartzea.*

Jarduera mota, burututako ekintzak eta merezimenduaren hasiera eta bukaera datak adierazi beharko dira. Jasotako merezimendu guztiak dagokien dokumentuekin justifikatu beharko dira.

Gehienez 30 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz.

2 .IKERKETA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA

2.1 UPV/EHU gisa sinatutako argitalpenak eta ezagutzaren transferentzia.

2.1.a) Seiurteko bi edo gehiago eta azkena ebaluatzeko eskatutako epealdian indarrean egotea.

Atal hau bakarrik bete ahal izango dute seiurteko bi edo gehiago duten eskatzaileek, azkena indarrean baldin badago. Aplikazioan zeintzuk diren positiboki ebaluatutako tartekak adieraztea beharrezkoa izango da.

Seiurtekoa eskatzaileak ebaluatzeko eskatutako epealdiaren barnean indarrean egon beharko da. Ez balego, ez da kontuan hartuko eta argitalpen atala 2.1.b puntuan adierazitakoari jarraituz baloratuko da.

Merezimendu hau justifikatzeko lortutako seiurtekoak egiaztatzen dituzten Ministerioaren edo Unibasq-en ebazpenak erantsiz egingo da.

2.1.b) Indarrean dagoen seiurteko gabe edo bi seiurteko baino gutxiagokoak

Atal hau bi seiurteko edo gehiago ez dutenek edo nahiz eta izan, azkena ebaluatzeko eskatutako epealdian indarrean ez dituzten eskatzaileek bete beharko dute.

2.1.b) i Argitalpen eta patenteak

Eskatzaileak bera egile den liburuak, liburuen kapituluak, artikulak eta patenteak adieraziko ditu.

Argitalpen zientifikoak egiaztatzeko ez dira kopiak erantsiko. Horretarako topaketa ahalbidetzen dituzten datuak eta bakoitzaren kalitate adierazleak adieraziko dira, hauen artean nahitaez ISBN edo ISSN.

Patenteak egiaztatzeko honen erregistroaren kopia erantsiko da.

Atal honetan, hala balego, erakusketak erantsiko dira. Erakusketak katalogoen bitartez justifikatuko dira. Edukieraren laburpen xehe bat, finantzaketa eta eskatzaileak izan duen rola gehitu daitezke.

Gehienez 60 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz

2.1b) ii Funtsak UPV/EHUri itzultzen dizkioten enpresa pribatuekin eta administrazio publikoekin ikerketa-kontratuetan parte-hartze aktiboa izatea, betiere Unibertsitatearen ohiko sistemen bitartez kontratatzen badira (OTRI, EUSKOIKER, hitzarmen bereziak)

Kontratuaren zenbateko ekonomiko osoa adierazi behar da eta parte-hartze mota.

Merezimendu hau kontratuaren aurkezpenarekin egiaztatzen da.

Gehienez 10 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz

2.1b) iii Enpresen sorreran parte hartzea, UPV/EHUn ikerketa-jarduera abiapuntu izanik.

Enpresaren izena, proiektuan parte-hartze maila eta betetzen den jarduera adierazi beharko da.

Sorreran parte-hartzea egiaztatzeko dagokion dokumentua aurkeztu beharko da.

Gehienez 5 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz

2.1.b) iv Unibertsitate-eremuan kultura ekintzailea sustatzen duten proiektuak.

Eskatzaileak proiektuetan parte-hartzearen maila adierazi beharko du.

Merezimendu hau proiektuen egiaztagirien bitartez egiaztatuko da.

2.1.b) v Ikerketa ezagutarazteko argitalpenak

Ebaluazio Batzordeak bakarrik hartuko ditu kontuan ikerketa ezagutarazteko argitalpenak (prentsa eta bestelako hedabideak). Ez dira kontutan hartuko 2.1.b atalean aldeztutako argitalpenak.

Helburua argitalpen hauek ikerkuntza izaera eta irakaskuntza izaera dutenetatik ezberdintzea da.

Gehienez 5 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz

2.2 Lehiaketa-deialdietan aitortutako ikerketa-jarduera kolektiboetan parte hartzea, gizartean oihartzun berezia duten gaiei erreparatuta.

Bi azpi-atal ditu:

2.2 a) Lehiaketa-deialdietan aitortutako ikerketa-talde ezagunetan parte hartzea.

Atal honetan agertzen diren eremuak bete beharko dira, hala nola, deialdi mota, finantzaketa egin duen erakundea, talde barruko maila, hasiera eta bukaera data, zenbatekoa...

Eskatzaileak UPV/EHUren, Eusko Jaurlaritzaren edo bestelakoen ziurtagiriaren bitartez talde horren kide izana edo parte-hartzea egiaztatu behar du. Ez dira aintzat hartuko talde bereko pertsonak igorritako ziurtagiriak. Finantzatu duen erakundeak ziurtatu beharko du.

2.2 b) Lehiaketa-deialdietan aitortutako ikerkuntza proiektuetan parte hartzea.

Eskatzaileak aplikazio informatikoak eskatzen dituen eremuak bete beharko ditu; deialdi mota, finantzatzen duen erakundea, proiektuan duen maila, ikertzaile nagusiaren izena, proiektuaren titulua, hasiera eta bukaera data eta emandako zenbateko ekonomikoa.

Eskatzaileak UPV/EHUren, Eusko Jaurlaritzaren edo bestelakoen ziurtagiriaren bitartez talde horren kide izana edo parte-hartzea egiaztatu behar du. Ez dira aintzat hartuko talde bereko pertsonak igorritako ziurtagiriak. Finantzatu duen erakundeak edo funtsak jasotzen duen erakundeak ziurtatu beharko du.

2.3 Nazioarteko proiektzioa duten ikerketa-sareak, azpiegitura zientifikoak edo laborategiak sortzea eta kongresu zientifikoetako antolaketa, betiere jarduera gauzatzeko finantzaketa jaso dutela egiaztatzen badute.

Eskatzaileak sortutako azpiegitura edo jarduera, finantzaketa eta emate data azaldu beharko ditu.

Merezimendu hauek behar bezala frogatu beharko dira.

2.4 Ikerketa-egonaldiak beste zentro batzuetan.

Ebaluazio Batzordea, beste gauza batzuen artean, egonaldiaren iraupena eta beraren esparrua (nazionala edo nazioartekoa izanik) baloratuko du. Halaber, egonaldi mota eta zein Unibertsitate edo Zentrotan izan den eta parte-hartze maila adierazi beharko da.

Eskatzailearen parte-hartzea egonaldiaren ziurtagiriarekin egiaztatuko da.

2.5 Doktorego-aurreko eta doktorego-ondoko ikerketa-kontratuak edo beka.

Beka edo kontratu bat den adierazi beharko da, doktorego-aurrekoa edo ondorengoa den zehaztuz, garatu den lekua eta iraupena.

Parte hartzea egiaztatzeko eskatzaileak dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

2.6 Biltzarretan/erakusketetan parte-hartzea



Ebaluazio Batzordeak biltzarra/erakusketa nazioartekoa, nazionala, autonomikoa, etab. izatea kontuan hartuko du. Gainera, kongresuetan/erakusketan parte-hartze maila baloratuko du. Erakunde antolatzailea, ospatu den lekua eta datak adierazi beharko dira.

Eskatzaileak behar bezala ziurtatuko ditu kongresu/erakusketa guztiak.

Gehienez 30 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz

2.7 Ikerketa sariak

Eskatzaileak sariaren titulua, zein erakundek ematen duen, emate data eta esparrua (nazioartekoa, nazionala, autonomikoa...) eremuak bete beharko ditu.

Eskaeran adierazitako merezimendu guztiak behar bezala frogatu beharko dira.

Gehienez 5 merezimendu zehaztea gomendatzen da, garrantzi handiagotik txikiagora sailkatuz.

2.8 Bestelako ikerkuntza merezimenduak

Atal honetan Ebaluazio Batzordeak aurreko ataletan aintzat hartu ez dituen bestelako ikerketa jarduerak hartuko ditu kontuan, indexatutako aldizkarietan edo izen handiko argialetxeetan "referee" bezala aritzea, edo laneratze munduaren edo mugikortasunaren alde egindako bultzada. Jarduera mota eta urtearen eremuak bete beharko dira.

Adierazitako merezimendu guztiak behar bezala frogatu beharko dira ebaluatuak izan daitezen.

3. KUDEAKETA

3.1 Unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak.

Abenduak 21ko 6/2011 Lege Organikoaren 13.artikuluari jasotako eta UPV/EHU-k sortutako hauen baliokide diren pertsona bakarreko kudeaketa-karguen jarduera baloratuko da.

Eskatzaileak kargua eta jardueraren hasiera eta bukaera datak adierazi beharko ditu.

Merezimendu honen egiaztapena UPV/EHUren zerbitzu orriaren bitartez egingo da.

3.2 Administrazio Publikoko karguak, zerbitzu berezien egoeran.

Ebaluazio Batzordeak kargu hauek aintzat hartuko ditu "zerbitzu bereziko" egoera sortarazten badute; horretarako kargua eta hasiera eta bukaera datak adierazi beharko dira.

Kargu hauek behar bezala frogatu beharko dira ebaluatuak izan daitezen.

3.3 Kudeaketa beste merezimendu batzuk.

Atal honetan aurreko ataletan kontuan izan ez diren Unibertsitateko organo kolegiatuetan edo irakaskuntza edo ikerkuntza beste jarduera batzuetan parte-hartzea baloratuko da eta sozietate zientifikoetan, aldizkarietan kudeaketa jardueretan parte-hartzea, etab.

Horretarako, garatutako jarduera eta hasiera eta bukaera datak adierazi beharko dira.

Gehitutako merezimenduen justifikazioa beharrezkoa da.

4. A MAILARAKO SARBIDEA

A mailako osagarria bikaintasuna aitortzera zuzenduta dago. Era berean, beste bi tramutan banatzen da: A1 eta A2.

A1 eta A2 tramuen ebaluazioa burutzeko eskatzaileak nahitaez bere curriculum vitae, formatu askean eta gehienez 5 orrikoa, gehitu beharko du Ebaluazio Batzordeak bere ibilbidearen ikuspegi globala izan dezan.

4.1. A1 Tartera

A1 tartera heltzeko, ezinbestekoa da 90 puntu lortzea, doktorego titulua izatea, C1 eta C2 tarteak lortu izana, UPV/EHUrekin edo beste unibertsitate edo ikerkuntza zentro batzuekin 15 urteko lotura izatea **eta A1 mailara heltzeko bete behar diren irizpideen barruan dagoen II. Eranskinean edo A2 mailara heltzeko bete behar diren irizpideetan jasotako merezimendu nabarmenetako batzuk betetzea, gutxienez bat, kasu bietan bizitza akademikoaren zehar lortutakoak.**

Eskatzaileak aplikazioan merezimendu hauek egiaztatu beharko ditu beren betetze-maila frogatzeko. Horretarako, merezimenduak aplikazio informatikoan seinatu beharko dira.

A1 mailaren sarbiderako aplikazio informatikoan gehitutako merezimendu guztiak dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko dira baloratu ditzaten.

4.2. A2 tartera

A2 tartera heltzeko derrigorrezkoa izango da 90 puntu izatea, doktorego titulua izatea, C1 eta C2 tarteak lortu izana, UPV/EHUrekin edo beste unibertsitate edo ikerkuntza zentro batzuekin 15 urteko lotura izatea **eta II. Eranskinaren A2 tartera heltzeko irizpide atalean adierazitako merezimenduetako batzuk (4 gutxienez), bizitza akademiko guztiaren zehar lortutakoak.**

Eskatzaileek eskatutako irizpideak betetzen badituzte, dagokion Ebaluazio Batzordeak **eskatzaileen artean A2 tartera lortzeko hautagaien proposamena egingo du.**

Ondoren, **Bikaintasunaren Batzordeak**, Ebaluazio Batzorde ezberdinen Batzordeburuek osatzen dutena, hautagaien proposamenak aztertuko ditu eta A2 tartearen ebaluazio positiboa dagokien erabakiko du.